

Nafarroako sorginkeria berriro eztabaidagai

Mikel Zabala Montoya
Aro Berriko Historian Doktorea

Artikulu honetan Nafarroako sorginkeriar buruzko gainbegirada orokorra eskaintzen da. Horren bitartez, azken urteetako lanen emaitzak aztertzen dira. Lehenik, Inkisizioaren egitura eta betekizunak azalduko dira. Jarraian, sorginkeria izatera izango da aztergai. Aurreko guztia bere testuinguru historikoan kokatu ondoren, Nafarroan Goi Aro Berrian izandako adierazpiderik ezagunenak gogoraraziko dira. Besteak beste, jatorria, kausak, prozedurak eta emaitzak landuko dira. Azkenik, etorkizunari begira, landu gabeko balizko gaien berri emango da.

This article shows a general view about the phenomenon of witchcraft in Navarre. In this way, it tries to analyse the results of recent works. Firstly, the structure and the functions of the Inquisition are detailed. Secondly, the nature of witchcraft is analysed. Afterwards, the author of the article places them in their historical context and presents the best known cases happened in Navarre in the Early Modern Age. Besides, he studies several points of them, such as their origin, causes, process and results. Finally, new researches are proposed to do in the future.

*“Que los Juezes y las Brujas
Todos chupamos,
Unas niñas, y otros quartos”*

Diego de Torres Villarroel: *Las Brujas del campo de Baraona* (1731).

1. Sarrera

Sorginkeria —edota sorgin-ehiza— entzute handiko arazoa izan zen Nafarroan Aro Berrian, batez ere XVI eta XVII. mendeetako zenbait unetan. Era berean, oso arrazoi ezberdinengatik, gaurkotasun handiko gaia dugu gaur egun ere.

Fenomeno hau, orokorrean, Europako hainbat eskualdetan garrantzi handikoa izatera heldu baldin bazen, Euskal Herriaren kasuan —Lapurdin eta Nafarroan bereziki— izugarria izan zen. Hori azaltzen duten arrazoiaren artean, Pierre de Lancre-ren idazlanak edota Logroño-ko 1610.eko autofedearen oihartzuna aipatu behar dira (Caro Baroja, 1966: 202). Horrez gain, zigorren arabera adierazpide haien ustezko tamaina ere kontuan hartu beharra dago.

Hemen ez dut sorginkeriak Nafarroan izandako agerraldi guztien azterketa zehatzik egingo. Ulergarria denez, ez da posible mota honetako idazlan batean. Ezta orain arte ezezaguna izandako balizko agerraldi baten berri emango ere, Nafarroako historiari buruzko nire ezagupenak zeharkakoak dira-eta (zuzeneko artxibategietako ikerketarik ez baitut egin). Nire asmoa zenbait galdera eta hausnarketa planteatzea besterik ez da.

Lehenik eta behin, sorginkeria testuinguru zehatz bateko fenomenoaren emaitza den, ala gizakien edo gizartearen izaerarekin nolabaiteko loturarik daukan argitzea beharrezkoa da. Aurrekoarekin batera, biktimak eta borroeroak ezberdintzeko zailtasuna dago. Akusazioak sinestera, sorginek izugarritzko gaiztakeriak egin zituzten: uztak galarazi, bortxaketak eta erailketak antolatu, etab. Ustezko delitu haiek guztiak egiazkoak ziren edo ez, eta, egiazkoak izatekotan, zein kasutan, eta zein neurritan bai eta zeinetan ez, argitu beharra dago.

Azken batean, horrek guztiak funtsezko beste galdera bateratzaile batera garamatza. Zergatik? Zeintzuk ote ziren adierazpide haien guztien helburuak? Zein motatako irabazkinak atera zitezkeen kontu haietatik guztietatik? Ikuspuntu erlijioso hutsetik aztertuta, fede kristauaren defentsa besterik ez zen egin. Inkisizioaren aldeko argumentuen artean, erlijio-gerren testuinguruarena erabili ohi da: Iberiar Penintsulan ez zen Europako beste hainbat eskualdetan izandako odol-isurketarik ezagutu, oso goizetik batasun erlijioso eta honen barneko jarraikortasuna begirune handiz zaindu zirelako. Horretarako, Inkisizioak eraildakoen kopuruak eta beste estatu batzuetan guden edota bestelako enfrontamendu erlijiosoen ondorioz eraildakoak konparatzen dira (Frantziako Erreinuan zorigaitoko San Bartolome Gaueko protestanteen sarraskia, esate baterako). Hala balitz ere, ustezko batasun hark ez zuen neurtzerik ez dagoen bestelako kalterik sorrarazi? Ez al zen bestelako errepresiorik —kulturala, adibidez— izan? Eta ez

naiz bakarrik goi-mailako taldeen kulturaz mintzatzen ari, sarritan, zentsuraturiko idazlanen aurkibidea aztertzea mugatu baita eztabaida. Azken batean, alfabetatuen kopurua garaiko biztanleria osoaren nahiko ehuneko murrizta zen. Herri xumeak kanpotik inposaturiko nagusitasun kulturala barnerratu behar izan ote zuen?

2. Inkisizioaren auzitegia

2.1. Sorrera eta ezaugarriak

Inkisizioaren Kontseilu Bedeinkatu, Orokor eta Gorena 1478.ean hasi zen gorpuzten, juduen aurkako erasoaldien testuinguruan, beraien konbertsioak bermatzeko. Erdi Aroko Inkisizioarekin alderatuta berrikuntzarik nabariena aginte laikoen mendekotasuna da. Erdi Arokoa Europa osoan zabalduetako erakundea baldin bazen ere, Aita Santuaren zuzeneko aginduetara zegoen. Une hartan, Errege-erregina Katolikoek (eta ondorengo agintariek) argi aurreikusi zituzten erakunde berri haren ahalbideak, Gorena izango zelako lurralde hispaniar batu berri guztietako erakunde bakarra. Izan ere, zenbait erresumatan egitura berri hura ezartzean nolabaiteko erresistentzia izan zen, Erdi Aroan ez zuten izan eta. Alferrikakoa izan zen, noski. Eta erresistentzia ez zen bakarrik lurralde haietan izan: Sixto IV.a Aita Santua bera ere berehala bertan behera uzten saiatu zen kompetentzien galera hartaz damututa; baina, azkenik, Fernando erregearen eraginagatik edo, amore eman behar izan zuen. Inkisizioak 1820. urtera arte iraun zuen.

Erlijosioak ez ziren bestelako betekizunak ere izan zituen Gorenak. Gaztelar Erregetzaren beste bide politiko eta judizialek iristerik ez zuten zirrikituetaraino heltzeko gauza zen, sarritan egiaztatu zen bezala. XVI. mendeko hirurogeigarreneko hamarkadako Bartolomé de Carranza Toledoko Artzapezpikuaren kasua, 1591.eko Antonio Pérez-ena eta 1644.eko Jerónimo de Villanueva Aragoiko proto-notarioarena, Inkisizioak Koroaren aldeko jarrera erakutsi zuen entzute handiko adibide batzuk besterik ez dira. Dena dela, une jakin batean agintariren baten erorketa eragitea baino askoz betekizun orokor eta arriskutsuagorik ere bazuen: ohiturak eta pentsamoldeak zaintzea; edo, nahiago bada, gizartearen homogeneotasuna lortzea. Baina helburu hori eskuratzeko, Gorena multzo askoz handiago baten atala besterik ez zela egiazta daiteke. Betekizunik ezatseginenak ziren ortodoxia betearaztea eta heterodoxia zigortzea zegozkion honi, eta, batez ere, intolerantziaren nagusitasunari eustea. Inkisizioaren egitekoa dela eta, “beldurrezko psikologiaz” mintzatu izan da (Bennassar, 1984: 178-179). Arrazoi osoz, nire iritziz.

Lehenik eta behin, akusatuen defentsarako bitartekoak beste epaitegietakoak baino murriztagoak zirela gogoratu beharra dago. Akusatutakoak ezin zuen salatariaren nortasuna —edota akusazioa bera ere— xehetasunez ezagutu. Egoera horretan, errugabetasuna egiaztatzeke aukera bakarra salatari nor zen asmatuta, etsai amorratua zela frogatzea zen. Hala eta guztiz ere, behin susmoa azalduta gero, aurrerantzean estu eta larri ibili beharko zen akusatutakoa handik ateratzeko, Gorenak, berez, erruduntzat jotzen zuelako, auziek aitortpena lortzeko asmoa baitzuten. Eta, zer esanik ez, aitortza lortu arte edozein bitarteko zen onargarria; bitartekorik eraginkorra zen tortura barne, noski.

Zigorrak, arinak zein larriak, mota ezberdinetakoak izan zitezkeen. Aldi berean zigor bat baino gehiago jasotzea posible zen, nolabait, ustezko arintasuna murriztuz. Arinen artean, agiraka egitea, abjurazioa, erbestealdia, ondasunak galtzea edota zigor espiritualak zeuden. Larriak, berriz, zigorradak, lotsaldi publikoa, sanbenitoak, zenbait ogibide betetzeko debekua, galerak, gartzelaldia edota heriotza zigorra ziren. Inkisizioak agindutako heriotza-zigorren kopuruak beste auzitegietaoak baino txikiagoak izan arren, arazoa ez datza zenbaki hutsetan, garaiko intolerantzia baizik, Gorena horretarako tresna (eta ez nolana hikoia) izan baitzen. Halako prozedurez baliatzea oso arriskutsua zen. Behin isilpeko salaketak onartuta, benetako salaketa eta gezur biribila ezberdintzea ez zen gauza erraza izango (are gutxiago halako delituetan), ezta sinesberak ez ziren epaileentzat ere.

Edozelan ere, errugabetasuna gutxitan ondorioztatu zen. Azken batean, hala erabakitzea akusazioa funtsik gabekoa zela eta —neurri batean, behintzat— Inkisizioa bera oker ibili zela onartzea zen, nonbait. Horren orde, normalagoa zen auzia geldiaraztea. Baina horrela, akusazioaren ezereza ezkutatzeaz batera, salatutakoa egoera ahul eta ezerosoan uzten zen: alde batetik, edozein unetan autoak berriro jarraitzeko arriskua egoteagatik; eta, bestetik, ohorea eta odol-garbitasuna funtsezkotzat jotzen zituen gizarte hartan, halako orbainak luzaro iraungo zuelako. Ez dezagun ahanztz, garai hartan, salaketa baten ondorioz sortutako bazterketa erreala zela. Auziari aurre egiteak (sententzia alde batera utzita) arazoak eta galerak baino ez zituela ekartzen ikusten da, beste edozein epaitegitan gertatzen zen bezala.

2.2. Egitura eta prozedurak

Hasiera batean auzitegiak mugikorak izan arren, laster finkatu ziren. Hispaniar lurraldea hamalauren bat barrutitan zatitu zen eta XV. eta XVII. mendeen artean aldakorrak izan ziren. XVI. mendearen hasierarako egitura nagusia zabaldua zegoen, eta ondorengo aldaketak egokitzapenak izan ziren. Barrutiak eratzean ez zen aurreko beste mugarik kontuan izan, Inkisizioaren agintea (Koroarena ez bezala) lurralde haietan guztietan hedatzen baitzen, bertako erakunde politikoen gainetik.

Gorenaren buruzagiak erregeak izendatutako kideak ziren. Guztien artean Inkisidore Orokorra nabarmentzen zen. Gai garrantzitsuenak kontseiluaren bileretan jorratzen ziren. Horretarako, prestakuntza handia behar zuten bertako kideek: elizgizonak edota legegizonak izan behar ziren, alegia. Dena dela, horiek baino interesgarriagoak izan daitezke beste era bateko oinarrizko partaideak, sortutako egiturak izandako ondorioengatik.

Hasiera batean tribunalak kide gutxiz osatzen baldin baziren, denbora aurrera joan ahala, gero eta gehiago sartu ziren: *komisarioak* eta *familiarrak* deitutako tokian tokiko laguntzaileak, besteak beste. Elizgizonak zein laikoak, biak sar zitezkeen sare horretan. Beren jatorrizko lurraldeetan egiten zuten lan eta inkisidoreena erraztu egiten zuten. Horiek sarritan kanpotarrak zirenez gero, ez zuten behar bezala ezagutzen zegokien barrutia. Jakina, halako kolaboratzaileak, nahitaez, ohituren begirale bilakatuko ziren, beren jatorrizko herrialdeetan, gainera. Ez da harriztekoa, beraz, kargu horiek biderkatzea (garai bereko beste hainbatekin berdin gertatu zen eta). Izan ere, familiarren kopuruak murrizteko baino gehiago,

geldiarazteko ahaleginak (kopuruak finkatzeko) izan ziren noizbait. Kide horiek salaketa guztien oso ehuneko txikia egin izanak beraien betekizuna zalantzan jartzera eraman du (Kamen, 1999: 144). Edozelan ere, galdera ondoko hau da: menpeko taldeek, edota berauetariko askok, halako prozeduretan parte hartu izanak eraldatu al zuen jatorrizko helburua, ala erantzukizuna sakabanatu besterik ez zuten egin? Era berean, Gorenak homogeneousotasuna lortzeko asmoa baldin bazuen, ez ote zuen alderantzizko efektua sortu, gizarte-barneko haustura areagotuz edo, gutxienez, alde aurretik zegoenari eutsiz?

Menpeko horiek ez zeukaten soldatarik (karguaren etekina ekonomiko hutsa¹ ez, baizik eta bestelakoa ere bazela begi-bistan dago). Izan ere, hasiera batean Inkisizioak, Erdi Aroko Inkisizioak bezala, ez zuen diru-sarrera finkorik. Geroago Gorenak bestelako baliabideak eduki arren, sekula ez zen erakunde aberatsa izan (juduen aberastasun handiak eskuratzeko asmoz sortu zela esaten bazuten ere). Hala ere, salatuek, batez ere behe-mailakoek, beste era batean ikusten omen zuten hori, auzietako gastuak ordaintzeko epaitutakoen ondasunez baliatzen baitzen Gorenak. Salatuari ondasun guztiak bahitzen zitzaizkion espetxeratu orduko, kartzelaldia edo gainerako gastuak ordaintzeko erabiliz. Hori zela eta, posible zen auzia erabaki bitartean akusatutakoa miseria gorrian gelditzea (sententziaren eragina bera ere kontuan hartu gabe, zigorren artean isunak edota bahiketak izaten zirelako).

Inkisizioaren ekitaldirik ikusgarriena autofedea dugu. Autofedea beldurra hedatzeko paregabeko antzezpena zen. Nekazaritza-lurralde bakartuetan, non biztanleria gehiena guztiz analfabetoa zen, halako bisitaldiak jasotzeak izugarritzko eragina izango zuen; izan ere, eskualde osotik etorritako jende pila biltzen zuen (jaiegunetan ospatu ohi zen eta). Beraz, damutzeko eta bekatuak aitortzeko etengabeko deialdi haiek hitzez hitz barneratzen ziren. Aitortutako erruen barkamenaren truke, lagunak salaketa ezinbesteko baldintza zela kontuan hartuta, histeria kolektiboa ondorio zuzena zela erraz uler daiteke.

Edonola ere, autofedea ezohiko prozedura zen. Aurrekoaren osagarria zen *bisitaldia* askoz arruntagoa dugu. Inkisidoreek aldika barrutiko ikuskaritza bete beharra zuten. Eta orduan hasten zen arestian aipatutako menpeko kideen lana, eskualde bakoitzeko egoeraren berri emateko.

Laburbilduta, inkisidoreek zuhurtasunez nahiz nagusikeriaz jokatu, Gorenak paregabeko egiturak antolatu zituen lurralde osoko bizimoduak eta ideiak kontrolpean izateko; bertako batzuen ezinbesteko laguntza interesatuaz, noski.

2.3. Inkisizioa Hego Euskal Herrian

Hego Euskal Herriko Inkisizioari dagokionez, Epaitegia behin betiko finkatu arte ezegonkortasuna izan zen nagusi. Hasiera batean, Osmako Barrutiaren barne egon ondoren, Epaitegiak Kalagorri eta Durangon tartekatu ziren. 1513.ean, Nafarroako Erresumaren konkista berriari lotuta, bertako barrutia sortu zen; baina

1. Hori ere guztiz baztertu gabe, noski. Atzerritarren eragin kaltegarririk sar ez zedin itsas portuetako zainketak paregabeko aukerak ematen zituen (ikuskatzailearen batek ere interes komertzialak ba omen zituen eta).

Kalagorrikoa ez zen desagertu, eta kompetentziaren inguruko gorabehera ugari sortu ziren. Hala ere, Nafarroako Epaitegiak ez zuen luzaro iraun, eta 1521.ean Kalagorrikoarekin batu zen berriro. Egoera horrek 1570.era arte iraun zuen, urte horretan egoitza Logroñon kokatu zen arte. Han finkatuko zen, azkenik, ondorengo mendeetan.

Lehenbiziko urteak ezezagunagoak baditugu ere, sasoirik gatazkatsuen, XVII. mendeko lehen herena, behintzat, sakonki ikertu da².

Barruti horrek, besteek bezala, ez ditu bestelako mugak errespetatzen (Euskal Herriatik kanpoko lurraldeak ere hartzen ditu eta). Haren elementu bateratzailearen bat topatzea zaila da, baina muga zabalak izatea eta Hego Euskal Herrian itzulpen-lanetarako euskaldunak behar izatea aipa daitezke.

1538 eta 1700 bitartean sei mila eta bostehun kausatik gora aurkeztu omen ziren barruti horretan (ezagutzen ditugunak bost mila eta hirurehun dira). Gehienak XVI. mendean izan ziren, 1591.etik 1630.era, bukaera aldera zertxobait urrituz; handik aurrera askoz epaiketa gutxiago izan ziren. Ezagututako eraildakoak ehun eta laurogeita zazpi dira guztira. Sorginkeriari buruz eskaintzen zaigun kopurua, berriz, nahiko murrizta da: guztira laurehun eta hirurogei kide³. XVI. mendearen hasierako datuak sartuz gero (tamalez, hori ez omen da posible), kopuruak handiagoak izango liratekeela pentsa daiteke. Bestalde, ezin da ahaztu zeharkako ondorioak askoz lagun gehiagok sufritu zituztela. Salazar y Frías inkisidorearen bisitaldi ospetsuan, adibidez, mila eta zortziehun kide inguru izan ziren aztergai (Henningsen, 1980: 302).

Edozelan ere, aurrez aipatutako datua konprenitzeko kontuan hartzekoak dira deliturik larrieneztat sorginkeria ez, baizik eta heresia (luteranoa eta ez-integratutako gutxiengoena) jotzea Gorenak, sorginkeriako agerraldiak aldizka baino ez izatea, eta agintari sekularren jarrera gogorra. Halako datuek, azken finean, ez dute arintzen sorginkeriaren larritasuna; aitzitik, askoz testuinguru zabalago batean —intolerantziarenean— sartzen zela erakusten dute. Eta, aldi berean, arazo laikoak eta erlijiosoak elkarri guztiz loturik zeudela.

3. Sorginkeria

3.1. Jatorria eta ezaugarriak

Sorginkeria munduko hainbat fenomeno ulertzeko ezintasunaren ondorioz asmatutako alegiazko azalpenei lotuta dago, bi multzoren arteko aurkaritzan oinarritutako kosmogoniari, hain zuzen ere. Batean Zerua, Eguzkia, Eguna eta Jainkoa daude. Bestean Ilargia (kontuan izan hitz honen etimologia), Gaua, Heriotza eta Lurra. Gizonezkoari dagokio bata; emakumezkoari bestea. Magia⁴ antzeko gauzen arteko trukerako emaitza baldin bazen, logikoa dirudi gehienbat emakumezkoen lotzeak.

2. Kalagorriko Epaitegiari dagokionez, I. Reguera-ren doktoretza-tesia (1984). Logroñoko kasuan, A. Bombín Pérez-ek (1997) landu du.

3. B. Zintzo-Garmendia-k (1993: 203-226) emandako datuak dira.

4. Magia zuria gizakiaren eta naturala ez den izaki baten arteko akordioa da, lehenentzat helburu bat daukana. Magia beltza, berriz, sorginkeriarekin pareka daiteke.

Bestalde, sorginen benetako sineskerien eta sorginen ustezko sineskerien artean tarterik ote zegoen galdetu beharra dago. Horrek sorginkeria eta demonio-keria ezberdintzera garamatza. Lehenbizikoan, helbururen bat gauzatzeko asmoz, Deabruarekiko akordioa izan arren, behin lortuz gero, bertan behera gelditzen da hitzarmena; ondorioz, deabrua bera izaten da, nolabait, galtzailea. Bigarrean, berriz, akordioa behin betikoa izaten da eta Kristautasunaren arbuioa dakar, deabrua gurtzen da eta. Aurrekoa, normalean, bakana baldin bazen, hau, aldiz, kolektiboa izaten zen. Arazoa hau da: euskarazko *sorgin* hitza biak adierazteko erabili dela; bien arteko nahasketa egon dela, alegia. Ezinbesteko galdera hau da: zergatia. Erantzun ezberdinak proposa daitezke: garai batean biak bat egin zutelako, kanpotik biak ezberdintzerik ez zegoelako edo baten batek biak nahastu nahi izan zituelako.

3.2. Sorginkeriatik sorgin-ehizaldira

Sorginkeriarri lotutako sinesmenak askoz garai luzeagoko fenomenoak baldin badira ere, sorgin-ehiza garai zehatz batean kokatzen da: Behe Erdi Aroan eta Goi Aro Berrian, hain zuzen ere. Ezezagunagoak ditugun Behe Erdi Aroko aldaketek eragin zuzena izan zuten dagozkigun Aro Berriko gertakizunetan.

Ezaguna denez, Behe Erdi Aroa krisialdi garaia da. Krisialdiak, berez, aldaketa bizkorra baino ez du adierazten. Edozelango aldaketa. Entzutetsuenak etengabeko gerrak dira (guri dagokigunez, Bando Gerrak) hain zuzen ere. Baina bestelakoak ere baziren, Kristautasunaren jarrera-aldaketa, esate baterako.

Ustezko akelarreen eta Antzinateko bakanalen arteko lotura proposatu izan da. Baliteke; izan ere, akelarreekiko itxurazko parekotasun asko daude. Era berean, bilera haietako ustezko gehiegikeriak azaltzeko baliagarria izan daiteke. Hala ere, oinarri kristaua duen gure gaur egungo kulturari, Elizak ere, Antzinate grekolarretik zein paganotik hainbat elementu egokitu zituela onartzea zaila egiten zaio. Besteak beste, Deabruaren irudikapena. Bere ezaugarriak, bestalde, eraldatu egingo dira Behe Erdi Aroan: ordura arte Jainkoaren menpe baldin bazegoen, handik aurrera horren antitesia izatera pasatuko zen, alderantzizko kultura jasoz. Kontraesana badirudi ere, Deabruaren eta Jainkoaren arteko parekotasunik antzematea heresiatzat jo ohi zen lehenago. Testuinguru horretan ulertu behar dira hainbesteko arrakasta izango zuten demoniologoek idazlanak⁵.

Kristautasunaren eta alde aurreko sinesmenen arteko aldebereotasuna posible izan zen lehenbiziko garaietan, gorabehera gehiegirik gabe. Arazoak, Kristautasunak bere ustezko nagusitasuna erakusteko asmoen ondorioz etorriko ziren. Hasiera batean Kristautasuna eta Paganismoa maila berean baldin bazeuden (bien arteko muga bertikala zelarrik), garai batetik aurrera, berriz, bi maila ezberdinduko dira: goian Kristautasuna, behean Paganismoa (bien arteko muga horizontala izanik) (Caro Baroja, 1966: 98).

5. XIV. mendeko Bernard Gui-ren edo Nicolás Aymeric-en idazlanetatik hasita, ondorengo mendeetan teoria gorpuzten joango zen. Kasu batzuetan erabat sinesgarriak; bestetan ez hainbeste. 1486.eko Heinrich Krämer eta Jakob Sprenger domingotarren *Malleus Maleficarum* idazlana izango da, seguru asko, guztien artean entzutetsuena.

Luzaro eztabaidagai izandako Euskal Herriko Kristautasunaren abiapuntua alde batera utzita, hasieran azalekoa izan zela nekez jar daiteke zalantzan, batez ere leku urrun eta aparteetan. Horrexegatik da posible aurreko sinesmenak oso berandu arte irautea.

Sorginkeriaren arazoa bi kultura-molde ezberdinen arteko tirabiren ondorioztat jo izan da (Murgil taldea, 1984). Alde batetik, euskaldunen balizko egitura zaharrak zeuden: naturan oinarritutako mitologiak gorpuzturik, ekoizpen-sistema kolektiboa zen eta gizarte-mailan nolabaiteko berdintasuna zegoen (matrilerrotasuna mantenduz). Bestetik, Kristautasuna, aurrekoaren guztiz kontrakoa: tradizioz gabeko eta eredu kanpotarreko sinesmenak ez ezik, oso mailakatutako gizarte-antolaketa eta jabetza pribatuaren lehentasuna ekarri zituen.

Zertxobait geroagokoa izan arren, Kontraerreformaren eragina ere kontuan hartzekoa da. Hemen, aurrez aipatutako arlo erlijiosoaren eta politikoaren arteko loturak ohi baino argiago nabarmentzen dira. Baina baita elizgizonen prestakuntza falta ere. 1590.eko Iruñeko Elizbarrutiko Konstituzio Sinodialetan bertako elizgizonen akatsak zehazten dira: emakumezkoekin harremanak izatea, debekaturiko negozioetan parte hartzea, jokoan aritzea, armak eramatea, blasfemiak esatea, tabernetan sartzea, edota neurriz kanpo jatea eta edatea, besteak beste (Valverde Lamsfus, 1994: 110).

Era berean, 1520.etik Kristautasunaren haustura eragin zuen Lutero-k, eta aipatzekoa da beronen zuzeneko edo zeharkako jarraitzaileen irizpideek Nafarroan bete-betean eragin zutela, bertako Errege-erreginek kalbinismoa onartu zuten eta⁶. Balizko historia egiteko asmorik ez badut ere (ezta oinarririk gabeko ondorioz atera nahi ere), gorte “herese” haren inguruan izandako euskara idatziaren loraldia interesgarria da oso; aldi berean, konkistaren ondorioz edo, euskara atzeraka ari zelako Hegoaldean (Satrustegui, 1989: 88). Hizkuntza eta inperioa bat zetozen. Agian, bien artean, baita erlijioa ere.

Hona hemen, hizkuntza dela-eta, beste datu bitxi bat: kultura idatzitik ia guztiz alboratutako euskarak gai honi buruzko bi hitz —gutxienez— zabaldu zituen Euskal Herritik kanpo. ‘Zortea’ adierazten duen latinezko *sors* eta euskarazko *egin* hitzetatik osatutako *sorgina*, eta *aker* eta *larre* hitzez konposatutako *akelarrea*⁷.

4. Sorgin-ehizaldia Nafarroan

4.1. Balizko azalpenak

Behe Erdi Aroko Euskal Herrian hainbat adierazpide ezagutzen badira ere (Bazán Díaz, 1998: 103-133), urrezko garaia —berezko sorgin-ehizaldietakoa, alegia— 1525 eta 1610 bitartean gertatu zen.

6. Ez da ahaztu behar Aragoiko Fernando-k Nafarroako konkista justifikatzeko aitzaki erlijiosoa erabili zuela.

7. M. Azurmendi-k (1993: 225-252) oso bestelako interpretazioa eskaintzen digu. Honen arabera, “sorgin” hitza harriduraren esanahi duen “sor” hitzatzik omen dator. “Akelarrek”, bestalde, akerrarekin zerikusirik ez du eta, ustez, Zugarramendi ondoko Akelarre toponimoaren eraldaketa besterik ez da. Aldi berean, Azurmendi-k elementurik zaharrenak eta berrienak nahastea leporatzen dio J. M. Barandiarani.

Hori azaltzeko faktoreen artean, baten batek sorgin-ehizaldiaren eta XVII. mendeko herri-altxamenduetako geografiaren arteko parekotasunak ikusi ditu, nonbait⁸. Hipotesi horren kontrako argumentuak ere badaude. Ustezko sorginen arteko lotura falta eta, horren ondorioz, ezarritako ordenarentzat ez izatea arriskutsua, adibidez. Baina mehatxua —erreala izan ala ez— era ezberdinetakoa izan zitekeen: gizonezkoen nagusitasunari aurre egitea, esate baterako. Ez dirudi azken puntu hori funtsik gabekoa denik, sorginaren profila kontuan hartuta. Sorginaren itxura fisikoa guztiz ezaguna da: gehienbat emakumezkoak dira, adinekoak normalean, sarritan akats fisikoren bat daukate (herrenak, begi bakarrekoak, oso itsusiak, etab.). Azken batean, garaiko gizarteak onartutako eruedetatik kanpoko kideak ditugu (alargunak, umezurtzak, etab.). Beraz, ezin aproposagoak, elkarrearen gorrotoa jasotzeko. Gorroto hori hainbat eratarata bidera zitekeen. Eman dezagun pertsona hori benetan sorginkerietan ibili zela. Hala izatera, auzokideek eskatuta eta beraien esanetara egoteko izan beharko zen, noski. Eskainitako zerbitzuak era anitzekoak izan zitezkeen: ganadua sendatu, antisorgailuak prestatu, etab. Baina ezinbesteko akatsak zirela medio, gorrotoak ziren kaltetutakoen artean. Handik salaketara pauso txiki bat besterik ez zegoen. Eta, behin hasiz gero, auskalo zertan buka zitekeen. Nekazari-bizimodu tradizionalako auzotartasunari mota guztietako tirabirak dagozkio (Echegaray, 1932): herri-lurren ustiapena, mugarren kokapena, senide-aurkakotasunak, etab. Zerrenda erraz luza daiteke. Eta baita partaideak ere. Baina maila bereko auzokideen arteko tirabira horizontalak ez ezik, klaseen arteko gatazka ere azalera omen zitekeen (Otazu y Llana, 1978: 827-842). Gatazka-mota bakoitza ezberdintzea zaila da oso, sarritan guztiak nahasten dira eta.

Horrela uler daiteke, beraz, behin baino gehiagotan beste epaimahaiak eta —oro har— aginte laikoek baino zuhurtasun handiagoz jokatzea Gorenak. Azken finean, Inkisidoreek berek, kanpotarrak izanik, ez zuten interes pertsonalik izaten epaitutako kasuetan: neutralagoak izateak logikoa dirudi.

4.2. Adierazpide nagusiak

Aurrez aipatutako bi daten arteko Nafarroako agerraldi nagusiak dagoeneko⁹ aztergai izan direnez gero, hemen gainbegirada arina baino ez diet eskainiko.

1525.ean lehenbiziko kasua dugu Orreagan, Luzaiden, Auritzen, Erronkarin eta Zaraitzun¹⁰. Hona hemen gogoratu beharreko zenbait datu. Lehenik, errepresioa Untzueko jauntxoak eta Errege Kontseiluko kide zen Pedro de la Balanza-ri zegokiola, aginte laikoari, alegia (izan ere, Inkisizioarekiko gorabeherak izan ziren kompetentziak zirela medio). Bigarrenik, une hartan gaztelarrek okupatutako Nafarroa Beherea ere, bide batez, baketu behar izan zuela Balanza-k. Hirugarrenik, inplikaturakoen kopurua berrogeita hamar eta ehun kide bitartekoa izan zela. Azkenik, harrigarria izan arren, agerraldi hartako zigorrak Zugarramurdikoak baino larriagoak izan zirela, nonbait. Zehazki sutara zenbat lagun bidali zituzten ez dakigu; berrogeiren bat proposatu da (Idoate, 1978: 23-32). Haien aurkako ahotsik,

8. R. Moreau-k (1973: 139) hala proposatzen du Ipar Euskal Herrirako.

9. J. Caro Baroja (1966, 1970 eta 1982), F. Idoate (1978) edota G. Henningsen (1980). Halaber, gehienbat agiri judizialen arabera.

10. Aldez aurretik 1507.eko agerraldia alde batera utzita, hari buruzko oso berri gutxi dago eta. Edozelan ere, Gorenak hogeita hamar lagun inguru erre omen zituela aipatu behar da.

berriz, ez omen zen entzun. Beharbada 1521.eko gatazka hurbilegi zegoelako (izan ere, Inkisizioak parte-hartze handia izan ei zuen 1521.eko altxamenduaren erantzukizunak argitzen) (Reguera, 1984: 199).

Bi urte geroago, beste agerraldi entzutetsu bat izan zen eskualde horretan bertan. Aurrekoa guztiz amaituta ez egoteagatik? Baliteke. Baina beste faktore bat ere kontuan hartzekoa da, nik uste: salatutako asko kanporatutako Nafarroako erregeen jarraitzaile agramondarrak ditugula (Caro Baroja, 1966: 193). Kasua Avellaneda inkisidorearen esku gelditu zen. Abiapuntua bederatzi eta hamaika urteko bi haurren salaketak izan ziren. Ehun eta berrogeita hamar kide inguru epaituta. Epaitzeko prozedura ere interesgarria da: bi haur laguntzailek kide susmagarriei ezkerreko begia aztertzen zieten; bien irizpideak bat etorri gero, sorgintzat hartzen ziren.

Sorgin-ehiztarien inguruko gertakizun harrigarriak ezohikoak ez baldin badira ere (askoz beranduagoko Pierre de Lancre-ren adibidea dugu), garai horretakoak aipatzekoak dira. Avellaneda-k berak (beronen benetako existentzia zalantzan jarri bada ere) (Bazán Díaz, 1998: 116) aurre egin behar izan zion sorginen eraso bati. 1531.ean Gipuzkoako sorginek Ugarte inkisidorea pozoindu eta erail omen zuten. Tamalez, 1538. urtea baino lehenagoko informazioa urria da oso. Egia esan, ez dakit zenbateko hedapena izan zuten asmakizun horiek. Baina horiek edo antzeko esamesak zabaldu zirela pentsa daiteke, une hartan sorgin-ehizaldietako berriak (eta, batez ere, ondorioz zabaldu zen beldurra) han-hemenka plazaratu ziren eta. Aldi berean, Hego Euskal Herriko beste lurraldeetan ere agerraldi berriak azaldu ziren. Zertarako balio zezaketen lasaitasunerako deialdiek halako zurrumurruak zabaltzen ziren bitartean?

Aurreko urteetan etengabeko kexak izan ondoren, 1539.ean beste agerraldi baten berri dugu. Lekuak errepikatu egiten zaizkigu (Erronkarin eta Zaraitzun kokatzen da eta). Protagonistak ere bai: salatutako Zaraitzuko alkatearen arbasoren bat hogeita bost urte lehenago erre omen zuten. Hori era ezberdinetan uler daiteke: sineskeriak eskualdean oso erroturik zeudela; gorrotoak gizaldi gizaldi besterenganatzen zirela; edo baten bat susmagarri agertuz gero, horren oroi-menak luzaro irauten zuela. Denetarik gerta zitekeen. Berehala, 1540.ean, autofede bat antolatu zen Iruñean. Berrogeita hamar kide inguru egon ziren inplikaturik, nonbait. Haien artean hogeita hamar haur.

1569.eko Burgiko kasua aipagarria da epaitutakoen artean apaiza dagoelako. Autoetan hogeita hamabost urte lehenagoko gorrotoak berpiztu ziren. Oso prozesu konplexua dugu hau, zortzi urtez luzatu zen eta. Dena dela, garrantzi handiagokoa izan ei zen 1575.ean hasitakoa.

Urte hartako agerraldia Gipuzkoako mugatik Erronkariraino hedatu zen, mendialdean zehar. Dirudienez, Anotzibarren ezohiko larritasuna hartu zuen. Lehenbiziko salataria bertako apaiza izan zen. Jarraian, haur batzuen laguntza izan zuen. Heriotza-zigorra kondenatutako hiru kideetatik, bi erail zituzten. Hirugarrenak, berriz, Logroñorako apelazioa eskatu zuen, baina, prozesua amaitu aurretik, gartzelan hil zen. Eta ez zen bakarra izan, auzia epaia bera bezain gogorra izan baitzitekeen. 1575.ean eta 1577.ean autofedeak egin ziren Logroñon. Guztira ehun eta hogeita hamasei lagun izan ei ziren auzipeturik.

Hortik aurrera, eta Zugarramurdiko agerraldi ospetsua gertatu arte, prozesuak moteldu egin ziren, Gorenaren jarrera zuhurrari esker, nonbait. Izan ere, aurrez auzitegi sekularren aurka izandako gorabeherak ia etengabekoak izan ziren. Kasu bakarrenetarikoa 1595.eko Araitzekoa da. Elementurik adierazgarriena: eragilea Anduezako jauntxoak izan zela, berak atxilotu baitzituen ustezko sorginak. Zer esanik ez: jokabide honen azpian jauntxoaren eta herritarren arteko tirabirak zeuden. Hamazazpi akusatu izan ziren, aurreko prozesuetan baino askoz gutxiago, alegia. Baina, udalerriko biztanle guztien ehuneko zenbatekoa? Aurreko prozesuetako egoera batzuk, behin eta berriro, errepikatzen dira. Alde batetik, hamabi urteko haurra erabiltzen da sorginak ezberdintzeko. Bestetik, hainbat preso hiltzen dira prozesua bukatu aurretik: gaixorik edo, agian, gosez. Kide batentzako epaia sei urteko erbestealdia izan zen. Baina hildakoei berdin zien; eta, neurri batean, baita gainerakoei ere, auziarekin lotutako gastuak zein bestelako kalteak aurrez eta nahitaez jasan behar izaten zituzten eta.

Azkenik, erdigunea Zugarramurdin eta Urdazubin izan omen zuen 1609.ean hasitako prozesu ospetsua heltzen gara. Horren ospea, XIX. mendearen hasieran egindako autoen berrargitalpenetik dator (Inkiszioaren kontrako borrokaren tes-tuinguruan); handik aurrera ia etengabe eztabaidagai izan da. Egia esan, aurreko kasuetako elementu asko errepikatzen dira. Abiaturua damututako sorgin baten salaketa izan zen. Urdazubiko komentuko elizgizonen eta eskualdeko jauntxo-gehiegikeriak ere azaleratu ziren. Akusatutakoen artean apaizen bat egon zen. Kartzelaldian baldintza kaskarrak izan ziren, eta, ondorioz, ezinbestean, hildakoak.

Dirudenez, 1610.ean Logroñon antolatutako autofedea sekulako ikuskizuna izan zen (ohi ez bezala, bi egunez luzatu zen). Hogeita hamaika kondenatu ziren eta hamaika heriotza-zigor egon ziren. Hala ere, sei besterik ez ziren bete, gainerakoak aurrez hil ziren eta. Aldi berean eta handik hurbil izandako De Lancre-ren auzietako gogortasunarekin parekatu da Gorenaren eskuzabaltasuna, nolabait adierazteko. Autofedearen oroitzapena handia izango zen oso. Efektu pedagogikorik ba ote? Egia esan, berehalako efektu asko izan ziren. Alde batetik, handik gutxira Bizkaian eta Gipuzkoan ez ezik, baita Iberiar penintsulako beste eskualde batzuetan ere, hala nola Galizian eta Katalunian, agerraldi berriak azaldu ziren. Bestetik, Salazar y Frías inkisidoreak bisitaldi berria hasi zuen gaiaren inguruko egia jakiteko, ustez. Emaitzak ezagunak dira: han ez zela sorginen berririk izan haietaz mintzatzen hasi arte. Sorgin-ehizaldiaren amaiera izan zen? Hala dirudi. Izan ere, handik gutxira —1617. urte inguruan— Isiltasunezko Ediktua indarrean sartu zen, zigor berriak eskatzen zituzten ahotsen aurka. Aurrez kondenatuentzat beranduegi zen, noski.

Aldaketa horren arrazoiak oso bestelako kontua dira.

4.3. Sorgin-ehizaldiaren krisialdia

XVII. mendearen erdialdetik aurrera ez zen halako prozesu handirik berriro izan. Aldaketa hori azaltzeko irizpiderik onartuena arrazionalismoaren hedapena da: Pedro de Valencia edo Friedrich von Speer-en jarrera kritikoak, eta, geroago, Pierre Gassendi eta Nicolas Malebranche-renak (Caro Baroja, 1966: 229-257). Salazar y Frías inkisidorearen lana ere goraiatu izan da (Henningsen, 1980: 393), nahiz eta beronen idazkiak garaiko demonologoarenak baino askoz ezezaguna-

goak izan. Jakina, ez ditut nik azalpen horiek zalantzatan jarri nahi, baina, besterik ere ez ote da posible izango?

XVII. mende osoan zehar, eta Kontraerreformaren eraginez, herri-mailako ageriko kultu ikusgarriak biderkatu egin ziren Hego Euskal Herrian. Arrazionalismoarekin zerikusirik ez zuten errito eta sinesmenak. Ala sineskeriak? 1622.ean Frantzisko Xabierkoa eta Inazio Loiolakoa kanonizatu zituen Aita Santuak. *Corpus Christi*-rena, Ama Birjinaren Garbikundearena, eta antzeko kultuen urrezko garaia da. Goi-mailako taldeen artean ustezko pentsamolde kritikoa nagusitzen zen bitartean, herri xumeak halako kultuak bereganatzeak ez al dirudi kontraesankorra?

Hona hemen beste aldaketa interesgarri bat: Nafarroako mugetako gorabeherak —neurri batean behintzat— moteldu egin ziren. Nahiz eta XVII. mendeko Hispaniar eta Frantziar Koroen arteko gerrak ia etengabeak izan (1638.eko Hondarribiko setioa gogoratu besterik ez dugu), mugak finkatuz joan ziren. 1567.etik Hondarribia, Doneztebe, Baztan eta Bost Hiribilduetako Artzapezpikutegiak Baionako Elizbarrutitik Kalagorrikora pasatu ziren, muga laiko eta erlijiosoak parekatzeko. 1620.ean, berriz, Nafarroa Beherea Frantziar Koroan sartu zen.

Laburbilduz, ez ote da posible goi-mailako taldeek indarkeriaren beharrik ez izatea, estualdirik larriena igarota egoera jadanik kontrolpean egonda?

5. Ondorioak

Goi-mailako taldeek beren nagusitasuna ezartzeko tresnatzat jo zuten Inkisizioa. Gorenak ez zuen benetako independentziarik. Botereen arteko banaketarik ez zegoen garai batean hori esateak ez dirudi guztiz zilegi, noski. Izan ere, Hispaniar Inkisizioa aginte laikoa zen eta Koroaren menpe zegoen (horra non zegoen bere originaltasuna). Baina Koroaren menpe ez ezik, beste aginte batzuen menpe ere bazegoen. Tokian tokiko erakundeek era ezberdinetako arazoak konpondu beharrean, desbideratzeko edota isilarazteko, ohiturak eta pentsamoldeak zigortzeko eskatu zuten. Zenbait inkisidorek biderik errazena aukeratu, eta eskatutakoa betearazi zuten. Beste batzuek, berriz, kontzientziari jarraituz edo, zuhurtasun handiagoz jokatzera dei egin zuten. Normalean pentsamolde atzerakoien eta aurrerakoien arteko tartetzat jo izan dena, koldarkeriaren eta ausardiaren arteko lehia ez ote den izan galdetzea zilegi da. Bestela esanda: azkeneko horiek heterodoxoak izan ziren ala kontzientziatzekoak besterik ez? Azken batean, ahots kritikoak oso garaiz entzun ziren. Arrakasta izan ote zuten ala eragin handirik gabekoak izan ziren jakiteak ez dauka horrenbesteko garrantziarik. Izan ere, sorgin-ehizaldien krisialdia hastean, ideia kritiko haiek zein giza taldek barneratu zituen ekar daiteke gogora: goi-mailakoak baino ez ziren izan, herri xumeak idatzizko kulturara heltzerik ez zuelako. Komenigarritasunaren susmoa, beraz, hor gelditzen da.

Horrek ez du esan nahi garaikideek —baita goi-mailakoek ere— inoiz mota guztietako superstizioak sinetsi ez zituztenik. Edozelan ere, sorgin-ehizetako gorabeherak (hainbestetan zerikusirik ez duten eragileei lotuta) adierazgarriak dira oso.

Salaketak epaimahaiek asmatutakoak ziren. Akelarreen arteko parekotasunak han eta hemen topa daitezke. Baina asmakuntzen arteko banaketa egin beharra

dago. Autoen fidagarritasun faltak ez du, berez, bertako informazio guztia balio-gabetzen, noizbait proposatu izan den bezala, aldez aurreko sinesmenak guztiz ukatuz¹¹.

Gorago esan bezala, sorginkeriaz lan asko idatzi dira. Idazlan honetan ez dut material berririk eskaini, ezta konklusio berritzailerik ere. Asmo bakarra gaiaren inguruko gainbegirada orokorraren bidez hainbat galdera plazaratzea izan da. Dena dela, etorkizunari begira balizko argibide berriren bat (edota hain berria ez izan arren, mereziko lukeena) zirriboratu nahi izan dut. Izan ere, nahiz eta gaia hain jorratua izan, erakargarritasuna ez du galdu, eta autoak —sarritan aurrez ezagututa ere— goitik behera transkribatzen edota berrargitaratzen jarraitzen da¹².

Guztiz ezezaguna dugun esparrua eta, ondorioz, gehien landu beharrekoa, nik uste, herri-mailako kultura da, zabal hartuta alegia. Aspalditik pentsamoldeen historia deitu izan den gai-multzoa: pentsaerak, jarrerak, ohiturak, baloreak, etab. Zer esanik ez: hau betetzeko zailtasunik handiena iturrien aldetik dator. Orain arte esandakoaren arabera argi gelditu den puntu bakarrenetarikoa autoetako fidagarritasun falta da. Arazoa askoz sakonagoa da, oro har, goi-mailako taldeek baino ez zekitelako idazten. Are gehiago: idazten jakin behar izateaz gain, menpeko taldeen artean, batez ere, nafar askorentzako ezezaguna zen hizkuntza menperatu behar zuten (gaztelera, edota, Nafarroa Beherean, frantsesa). Idazmena ere menperatzeko tresna izan zela begibistakoa da. Agian, etnografiaren bitartez lan daiteke gaia, material ikonografikoak edota bestelakoak aztertuz. Edota mikrohistoriaren bidez: behin Nafarroako demografia historikoaren oinarriak ezarrita¹³, segurtasun handiagoz finka litezke horrelako ikerketak.

Aipatutako bibliografia

- Aranzadi, J. (1982): *Milenarismo vasco (Edad de oro, etnia y nativismo)*, Taurus, Madril.
- Azurmendi, M. (1993): *Nombrar, enbrujar (Para una historia del sometimiento de la cultura oral en el País Vasco)*, Alberdania. Irun.
- Bazán Díaz, I. (1998): "El mundo de las supersticiones y el paso de la hechicería a la brujomanía en Euskal-Herria (Siglos XIII al XVI)", *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*, **25**, 103-133.
- Bennassar, B. (1984): "Modelos de la mentalidad inquisitorial: métodos de su pedagogía del miedo", in A. Alcalá et alii (bil.), *Inquisición española y mentalidad inquisitorial*, Ariel, Bartzelona, 174-182.
- Bombin, A. (1997): *La Inquisición en el País Vasco: el Tribunal de Logroño (1570-1610)*, EHU, Gasteiz.
- Caro Baroja, J. (1966): *Las brujas y su mundo*, Alianza, Madril.
- , (1970): *Inquisición, brujería y criptojudasismo*, Ariel, Bartzelona.

11. J. Aranzadi (1982: 266-267). Ustez, sorgin-ehizaldiak gertatu ondoren (eta beraien ondorioz) XIX eta XX. mendeetako etnografiak bildutako deskribapenek eratutako sinesmenak islatuko lituzkete, ez aldez aurrekoak. Jakina, muturreko jarrera hori eztabaidagarria da oso, etnografia edota hizkuntzalaritzaren ikerketarik oinarritzkoenak —J.M. Barandiarán edota J. Caro Baroja-renak ere barne— goitik behera gaitzesten baititu.

12. Bizkaiaren kasuan, K. Pérez Urraza-k (2000) edota nik neuk ere (M. Zabala Montoya, 1999) egin dugu. Gipuzkoari dagokionez, C. Rilova Jericó (1999: 145-167) aipatu behar da.

13. Aldez aurreko A. García-Sanz Marcotegui-ren lanetik hasita (1985), A. Zabalza Seguín-ek (1994) edota F. Mikelarena Peña-k (1995) jarraitu dute bidea.

—————, (1982): *Brujería vasca*, Txertoa, Donostia.

- Echegaray, B. (1932): "La vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco", *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, **XXIII**, 4-29, 376-405, 546-564.
- García-Sanz, A. (1985): *Demografía y sociedad de la Barranca de Navarra (1760-1860)*, Príncipe de Viana, Iruñea.
- Henningsen, G. (1980): *The Witches' Advocate. Basque Witchcraft and the Spanish Inquisition (1609-1614)*, University of Nevada, Reno [gaztelaniazko itzulpena ere badago: (1983): *El abogado de las brujas: brujería vasca e Inquisición española*, Alianza, Madril].
- Idoate, F. (1978): *La brujería en Navarra y sus documentos*, Príncipe de Viana, Iruñea.
- Kamen, H. (1999): *La Inquisición Española. Una revisión histórica*, Crítica, Bartzelona.
- Mikelarena, F. (1995): *Demografía y familia en la Navarra tradicional*, Príncipe de Viana, Iruñea.
- Moreau, R. (1973): "Sorcières et sorcellerie en Pays Basque", *Bulletin du Musée Basque*, **61**, 121-154.
- Murgil Taldea (1984): *Sorginak eta erreprezioa Euskal Herrian (bi kultur molde aurrez aurre)*, Gordailu, Donostia.
- Otazu y Llana, A. (1978): "Brujería y régimen señorial en la Montaña atlántica de Navarra", in A. Carreira et alii (bil.), *Homenaje a Julio Caro Baroja*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madril, 827-842.
- Pérez, K. (2000): *Zeberioko sorginen gaubak. 1538-1558 bitarteko auzien azterketa historikoa*, Zeberioko Udala, Zeberio.
- Reguera, I. (1984): *La Inquisición española en el País Vasco (El tribunal de Calahorra, 1513-1570)*, Txertoa, Donostia.
- Rilova, C. (1999): "Brujería en la comarca del Bidasoa. El problema de la incredulidad en el siglo XVIII", *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*, **29**, 145-167.
- Satrustegui, J.M. (1989): "Impacto del cambio político en la situación del euskera y posterior evolución", in Varii, *475 Aniversario Conquista de Navarra: Jornadas históricas*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 79-88.
- Valverde, L. (1994): *Entre el deshonor y la miseria. Infancia abandonada en Guipúzcoa y Navarra, siglos XVIII y XIX*, EHU, Bilbo.
- Zabala, M. (1999): "1616/1617.eko sorgin-ehiza Bizkaian: Barneko kontraesan eta kanpoko erasoetako goi mailako taldeen konponbide", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, **LV-1**, 93-114.
- Zabalza, A. (1994): *Aldeas y campesinos en la Navarra Prepirenáica (1550-1817)*, Príncipe de Viana, Iruñea.
- Zintzo-Garmendia, B. (1993): "Actividad habitual del tribunal vasco-castellano", in Varii, *Los Inquisidores*, Besaide, Gasteiz, 193-240.